

Tolosa

Tolosa

Manex Urruzola • ‘Sagardoa Bidegile’ dokumentalaren ekoizlea

«Sagardoaak garrantzia handia izan du hemengo gizartean»

Igandean estreinatuko dute Donostiako Principe zineman ‘Sagardoa Bidegile’ dokumentala, Zinemaldiko ‘Culinary Cinema’ sailaren barruan. Manex Urruzola tolosarra da sagardoaren inguruan hitz egiten duen ikus-entzuneakoaren ekoizlea. Pozik dago estreinaldiaren aurretik jaso duten erantzunarekin.

IGOR AGIRRE TOLOSA

Gure inguruan oso ezaguna den edarietako bat da oraingoan dokumental baterako aitzakia: sagardoa. Elhuyar eta Pixel ikus-entzuneko ekoiztetxearen artean sortu dute dokumentala eta horren ekoizle ardura izan du Manex Urruzolak (Tolosa, 1981). Estreinaldirako sarrera guztiak saldu dituzte jada.

Nondik sortu zen sagardoaren inguruko dokumentala egiteko ideia?

Asko galdetzen digute hori. Istorio hau aspaldi hasi zen, duela hiru urte eta erdi edo. Nik Elhuyarren lan egiten dut eta aspalditik geneukan buruan sagardoaren inguruan bazeudela bitxikeria batzuk eta akaso, jendearentzat horren ezagunak ez diren kontu batzuk. Guzti horiek ikus-entzunezko bat merezi zutela pentsatzen genuen.

Gero, badakigu horrelako kontuak nola izaten diren. Animatzen joan ginen eta dokumental formatua ematea erabaki genuen. Ate batzuk jotzen hasi ginen ondoren. Ikusi genuen, dokumentala egiteko, lehendabizi, gutxieneko azpiegitura behar genuela, batez ere finantzaketa etab. Denborarekin gauza horiek lotzen hasi ginen eta elur-bola-ren tamaina nahikoa handia zela ohartu ginenean hasi ginen grabaketekin.

Grabaketak serio-serio egiten duela ia urtebete hasi ginen eta az-



Manex Urruzola tolosarra dokumentalaren berri ematen duen kartela eskuetan duela. IGOR AGIRRE

kenean, elur bola handituz eta handituz joan da, Zinemaldian aurkeztu arte.

Zuzendaria Bego Zubia da.

Bai, nire lankidea da Bego, Elhuyarren. Eskarmentu handia du. Urte askotan kazetaritza idatzian ibili da eta azken zazpi-zortzi urtetan Tek-

nopolis telebista saioan. Hortik, ikus-entzunezko lotura horretatik, dokumentala egin dugu.

Dokumentalgintzan hasi berriak zarete orduan.

Gure opera prima da, bai. Guretzako lehenengo lana da eta oso polita izan da prozesu guztia. Duela hiru

urte eta erdi kontu honekin hasi ginenetik, pausoz pauso errealtate nola bihurtu den ikustea berezia izan da. Lehenengo, gidoia bihurtu zen errealtate; ondoren, lehenengo diru-laguntzak lortu genituen; poliki-poliki grabaketak egiten joan gara... Leku askotan egin ditugu grabake-

tak. Gero, horri, musika jarri behar izan zaio. Dena josi behar izan da eta bai, ederra izan da.

Zer kontaktzen du zehazki dokumentalarekin?

65 minutuko luzera dauka dokumentalarekin eta protagonista sagardoa da. Denok ezagutzen dugu sagardoa baina hala ere, horren inguruko bidaia kultural, gastronomiko, historiko eta zientifikoa da dokumentala.

Azkenean, kuriosoa da: sagardoa mundu guztian egiten da baina Euskal Herrian egiten den sagardoa bakarra da. Gainera, sagardoa garrantzia handia izan du hemengo gizartean. Adibidez, baserriaren egitura, gaur egun ezagutzen dugun bezala, sagardotik dator.

Aztera begira jartzen gara dokumentalean, baina aurrera begira ere bai. Hemendik aurrera sagardoaren erronkak zein diren aztertzen ditugu. XX. mendearen hasieran, sagardoa askoz ere garrantzitsuagoa zen Euskal Herrian orain dena baino, eta hori berreskuratzeko zein neurri hartzen ari diren ere azaltzen da.

Euskal Herriatik kanpo ere ibili zarete grabatzen ezta?

Egia da, bai. Ez dut asko kontatuko Ameriketako Estatu Batuetan egon garela esaten badut. Argi genuen hasieratik: dokumental bat egin behar bagenuen, Ameriketako Estatu Batuetan sagardoa hartzen ari den indarra edo merkatuan irekitzen ari diren ate horiek erakutsi behar genituen.

Dokumentalaren trailerrean Jakoba Errekondok hau dio: «Sagarrik gabe ez genuke baserririk edukiko».

Bai, hori da. Jakobak perla hori botatzen du eta horrelako gehiago ere esaten ditu dokumentalean zehar. Egia esan Jakobak asko daki sagardoaz eta dokumentalean egon behar zuela argi geneukan hasiera-hasieratik. Kuriosoa da, sagardoaren inguruan, hori eta horrelako beste esaldi borobil bat baino gehiago ematen dituela Jakobak. Ikus-entzulea harrituta utziko dute, seguru.

Emakume batek trailerrean dio,

sagardotegi batean momenturik zailena, emakume bezala, kupe-lak irekitzea dela. Feminismoa ere jorratzen al du ikus-entzunezkoak?

Ez da dokumentaleko gai protagonista baino bada zeharka-zeharka ateratzen den gaietako bat. Ordubetean gai asko lantzen dira eta berdintasunarena ere hor dago. Azkenean, sagardoaren mundu imaginarioa gizonetzkoen mundua dela dihardu, baina gertatzen ari den gauza bat eta errealitate da, ordea, sagardotegiak orain hartzen dituzten kudeatzaile asko, emakumeak direla. Hainbat arrazoiengatik ger-

“ Denok ezagutzen dugu sagardoa, baina horren inguruko bidaia kultural, gastronomiko eta zientifikoa da”

ratzen da hori: batzuetan, horrela suertatu delako besterik gabe eta beste batzuetan, sagardotegi bateko ondorengo guztiak alabak zirelako.

Egia da, protagonista bat baino gehiago direla zuk esandako egoera horren aurrean daudenak. Dokumentalean hitz egiten duen emakume bakoitzak bere ikuspegia dauka. Batzuetan ez daukate zer ikusirik batuk bestearekin, baina ikuspegi horiek ere erakusten dira.

Film egileei dena kontrolpean izatea gustatzen zaie askotan. Sagardotegiak ez dira horretarako tokirik proposenak ziur aski. Nola bizi izan duzue hori guztia?

Nik uste dut alderantziz dela. Azkenean, kamera batekin goazenean grabaketa bat egitera, guk beldur gehien naturaltasun faltari izaten diogu. Hau da, elkarrizketa bat egin behar dugula eta parean daukagunak gidoia buruz ikasita daukala; edo oso urduri dagoela eta ez dela ari gauzak normalean egiten dituen bezala egiten edo esaten dituen bezala esaten. Hori asko nabaritzen da kameran.

Sagardotegi batek, juxtu, horretan laguntzen duela uste dut. Jendea hasieran kamerak ikusi eta deseroso egon daiteke, baina bigarren edo hirugarren txotxerako, jendea animatu egiten da eta horri esker irudi onak lortzen dira. Dokumentalean badaude horrela lortutako momentu batzuk, hasiera batean gidoian agertzen ez zirenak. Horrelako urrezko momentu bat lortzen duzunean, azkenean, dokumentalean sartzen duzu.

Momentu horietako batean ala ez, eskualdea ikusi ahalko dugu irudietan?

Irudiak orokorrak dira. Gipuzkoa,

Bizkaia, Iparralde... orokorrean Euskal Herria agertzen da. Tolosaldeko sagardotegiren bat edo beste agertzen den ez dakit ziur. Hala ere, ikusi ez dakit, baina entzun, entzungo dugu Tolosaldea.

Dokumentalak badauka jatorrizko musika bat. Bagenituen partiturak idatzita, musikariekin hitz egin da genuen, baina estudio bat behar genuen musika hori grabatzeko. Horretarako Bonberenea aukeratu genuen. Bonbereneakoak, egia esan, oso ondo portatu ziren gurekin eta gainera, dokumentaleko soinu-tek-nikaria beste tolosar bat izan da, Mikel Zelaia *Mirri*. Berarekin grabatu genuen dokumentaleko musika Bonbereneako estudioan, urteko egunik beroenean, seguru aski. Ia urtu ginen bertan! Ez dakit hala ere, edo agian horregatik, baina oso ondo geratu zen musika.

Igandean proiektatuko duzue lehen aldiz dokumentala. Zer moduzko harrera jasotzen ari da estreinaldia?

Igandean estreinatuko dugu dokumentala Donostiako Zinemaldian. Principe zineman izango da 18:00etan. Oso pozik gaude eta aldi berean harrituta. Oso pozik gaude Zinemaldiko sarrerak salgai jarri zirenetik bi ordu eta laurdenera agortu zirelako. Aldi berean, aldiz, harrituta gaude, ez guelako horrelako erantzuna espero. Arrakastasua da guretzat eta pozik gaude, baina zur eta lur ere bai, familiarterako eta lagun batzuk sarrerarik gabe gelditu baitira.

Ez zozate lehiatzera Donostiara, ordea.

Culinary Cinema atalean dago dokumentala eta lehiaketaz kanpo goaz, bai. Hala ere, estreinaldirako sarrerak berehala agortu baziren ere, bi egun beranduago, asteartean, berriro proiektatuko da dokumentala eta saio horretarako oraindik gertatzen dira sarrera batzuk.

Hemendik aurrera zein ibilbide izango du dokumentalarekin?

Egia esan, nahiko modu naturalean etortzen ari dira aukerak. Hemendik urte amaierara arte, Zinemaldian erakusleho hori edukitzeak zer bide ematen duen ikusiko dugu. Egia esan, nazioarteko beste zinemaldi batzuetatik jarri dira dagoeneko gurekin harremanetan. Hala ere, oraindik garai da zerbait esateko. Zinemaldian egon behar dugu berriekin eta ikusi dugu zein aukera ditugun. Printzipioz, ideia litzateke, Donostiakoa bezalako beste zinemaldiren batean edo bestearen parte hartzea. Horretaz gain, ETBn ere emango dute ikus-entzunezkoa.

Gero, gure asmoa da, urtarrietatik aurrera eta sagardo denboraldiarekin batera, Euskal Herriko zinemetan proiektzioak egitea.

Eskualdeak presentzia izango du Zinemaldian, eta Zinemaldiak Tolosaldean

King Kong-en bi film eskainiko dituzte TOPIC zentroan, ostiralean eta larunbatean

M. IRAOLA

Ostiralean hasiko da Donostiako 63. Zinemaldia, eta hilaren 26ra arte luzatuko da. Eskualdeak izango du presentzia Donostian, eta Donostiak ere Tolosaldean.

Izan ere, beste behin, Topic zentroak eta Donostiako Zinemaldiak bat egin dute, bertan eskaintzen diren film batzuk Tolosan ikus daitezen. Aurten King Kong-en bi filmak izango dira ikusgai, zine jaialdiak Zine Klasi-koari eskaintzen dion tarteren barruan. Horietako bat Merian C. Cooper eta Ernst B. Schoedsack egilerena da, 1933. urtekoa, eurei zuzendurik baitako zine klasiko tarte hori. Film hauen emanaldiarekin batera, Zinemaldia eta Tolosako Inauterriak batuko ditu Topic-ek. Izan ere, King Kong filma bertan proiektatuko dela aprobetxatuz, Iñaki Goikoetxeak 2010. urteko inauterietan filmeko protagonistarekin egindako panpina erraldoia jarri dute museoan. Bertan geratzeko asmoa du.

Diseinatzaile tolosarrak burua gor-



Iñaki Goikoetxea diseinatzaile tolosarrak 2010eko inauterietan egindako King Kong-en panpina erraldoia. E. MAIZ

de zuen inauteri haien ondoren, eta zertxobait konpondu ondoren, Topic Zentroari eman dio.

Ostiralean bertan, film emanaldia- ren aurretik, 19:00etan, egingo dute

panpinaren inaugurazioa. Oraindik esan ezin den sorpresaren bat ere izango da.

Eskualdean grabatutako film bat

Aurtengo Zinemaldian euskarak ez ezik, eskualdeak ere izango du tokirik. Izan ere, Zuzendari Berriak atalean *Pikadero* emango dute. Filmeko bi protagonistak eskualdekoak dira: Alkizako Barbara Goenaga eta Tolosako Joseba Usabiaga. Komedia erromantikoa da eta bikote gazte batek krisia dela eta gurasoen etxetik joateko dituen arazoaren inguruan hitz egiten du.

EMANALDIAK

TOLOSAN (TOPIC)

Irailak 18.

King Kong. 20:00etan

Irailak 19.

El hijo de King Kong. 18:30ean.

‘PIKADERO’

Irailak 18.

14:00etan, Principal aretoan; 16:00etan Kursaal.

Irailak 19.

18:15ean Antiguoa Berri.

Irailak 20.

22:45ean Antiguoa Berri.

Irailak 24.

21:30ean Kursaal.



zozketak

Atarikideentzat **sarrera pare** dugu



PILOTA PARTIDUA
Txakolin Egunean

Irailak 19, larunbata • 16:30etan Amasako frontoian

Atarikideentzat **5 sarrera pare** ditugu



IKUSKIZUNA
LA FUERZA DEL DESTINO

Irailak 25, ostirala • 19:00etan Tolosako Leidorren

Atarikideentzat **3 sarrera pare** ditugu



Egun osoko egitaraua
Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin

Irailak 27, igandea • Tolosan



Zozketetan parte hartzeko osteguna, 13:00ak arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.info**

2015eko

berria beka

Zuzenketa-itzulpengintza arloko

beka bat

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta ibilbide profesionala bideratu nahi dutenentzat

EZAUGARRIAK:

- Bederatziti hilabeteko iraupena
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Esaerak aurkezteko epea: **2015-09-28** • Eskaera egiteko orria eta beka delaldia **www.berria.eus** helbidean eskura daitezke. Interesa duenak **gizabaliabideak@berrialdea.net** helbidera ere bidal dezake curriculum.

